

Telmo Munduate Goikoetxea

B maila • 1 saria

Telmo Munduate naiz, San Benito ikastola dabilen ikasle ataundarra. Neure burua eguneroan entzun ohi ditugun istorioak eratzten dituen horietakoa jotzen dut, ingurunea begiratu eta hura hitz bilakatu.

Hitz bilduma honek askoren begiak laburbiltzen ditu, (B)EGIAK egia kontatu duten haiena da.



(B)EGIAK

Udazken eguerdi sargori eta trumoitsuan, bat bateko euri zaparradatik ihesiz, sorbaldan oihal zaku handi bat dakarren gizaseme iharra plazako arkupeetan babestu da. Arnasestuka dihardu, erdi makurtuta lurrera so.

Ezpainak isil, begiak mintzo

“Hau amorrua. Goiz guztia ateri eta eskolatik irteteko momentuan euria. Iada matematikako ariketekin nekatuta, alboan dudan leihotik mundura begira txistu bizian aterperatu den gizon horrengana joan dira nire begiak. Arraroa da. Euritatik babes bila edo bestelako estualdian etorri ote da? Nire lagun Omar bezala beltzarana da. Ikatz kolorekoa. Han eta hemen, beti kalean gora eta behera dabiltzan zorioneko horietako bat. Eskolarik gabe bizi daitekeenaren ispilu. Ikasketarik gabe? Nola bada. Hori da gure andereñoaren aldikako erretolika: eskola, ikasi, zorteko zarete, ...

Omar da gure gelan gehien bidaiatu duena. Afrika ere ezagutzen du, eta nik ere, handia egiten naizenean hara joan nahiko nuke, nahiz eta Omarrek esan ez dela pelikuletan bezalakoa. Bera itzulerako bidaiia txartelik gabe etorri zela guregana esaten du. Lehoi, tigre eta bestelako oihan abere basatiekin abenturak Tarzanen filmetako kontuak omen dira. Bestelako miseria abenturak bizitzen ohikoagoa dela han. Berari ez zaio Afrika asko gustatzen. Behin eta berriz, gosea, beroa eta gaixoaldiak zirela beraien eguneroko esaten du. Nik hala ere harantz joateko ametsa dut eta Oihaneko Errege izan.

Korrikalari hau ere handik etorritakoa eta tarteka herriko plazan diskoak eta filmak saltzen egoten direnetako bat izango da. Nere gustuko abentura filmak. Eta beste edonon baino merkeago. Hala ere amak ez dit inoiz beraiei erosten uzten. Berak dioenez ez omen da “legala”. Legala? Akaso egunero mutiko gizajo bat eskolara ekartzea “legala” ote da?... Gurasoek ikusten dituzten albistegi aspergarri horietan sarritan entzuten ditut “legala” eta “ilegala” hitz magikoak. Dirudienez munduko gertaera guztiak bi talde horietan banatzen dira. Eta noski, nire gurasoak beti talde oneko kideak. Ziur nago oihal zaku horretan badagoela nire ametsetako den zerbait. Edo gutxienez zoriontsu egingo nauena.”

Nork bere begiko zakarrik ez du ikusten

Alditan kazkabarra ere gogor ari du.

“Ene neska! Ikusten al dun horko hori? Lekuz kanpo galdutako tximinoa zirudien. Blai eginda. Zer eginik ez daukatenean hona etortzeko joera hartu diten azken aldi honetan, kale bazterrean planto egin eta guri edozer “lakaxkeri” saltzeko ahaleaginean. Ez dinat asko entenditzen gai hauetaz. Gure garaian ez geninan pentsatu ere egingo inguruan beltzak izango genituenik. Balorerik ez zienat kentzen. Ez horixe. Ni, nire mendea betetzeko gutxi falta dudala, ez naun Ebrotik behera jaitsi. Ezkon bidaian Donostiara eta gustura. Hauek berriz gazte etortzen ditun.

Arrazoa dun Maria. Egia esatea nahi badun ez dizkinat gustuko. Gure Jaungoikoak mundua kontinenteetan banatzeko arrazoiaren bat izango zinan. Ondotik pasatu eta poltsa tirakadaren bat egiteko beldurrez, noranzkoa aldatu eta Estankoko izkinaraino etorri behar izan gaitun aterpe bila. Beraien “tierran” gaizki bizi direla haitzakitzat hartu eta hona zetozen danak bazterrak nahastera

Bai emakumea, “Telediariora” jarri eta beste konturik ez zegoen. Aurreko astean Italian itsas ontziari sartzen ez utzi, eta atzo berriz denei ongi etorria ematen Balentziako portuan. Bihar ere patera bat ez badun, kamioi azpi bateko notizia izango dinagu. Eta urrutira joan gabe, Irun aldean ere ez dun giro. Ikusi al ditun atzoko irudiak? Hemen ere gure artean nahikoa lan egiteko badinagu, kanpokoekin hasi aurretik.”

Beharrak, begiak erne

“Abdul Brihait. Dokumenturik gabea. Hezur proba: 16-17 urte. Ustezko jatorria: Ghana. Iriste lekua/data: Cadiz, 2018-06-08. Egungo bizilekua: Ezezaguna.

Sarritan ikusi ohi dut, gaur bezala, legez kanpoko kale salmentan. Mafien esklabo. Kirol oinetako eta arropen, emakumeen poltsa eta gainerakoen legez kanpoko merkataritzan goiko marrazo handiak aberasteko.

Nire autoritate lana ahalik eta hoberen betetzen saiatu arren ez naiz ausartzen, ezin dut egin, nahikoa du gizajoak. Gaurkoan bakean uzteko lizentzia ematen diot nire buruari.

Behin baino gehiagotan ikusi dut komisarian. Beste edozein gaizkileek baino denbora gehiago pasatuz gurean eta galderei erantzuteko sostengurik gabe. Hainbat aldiz epaitegira eraman ere bai. Zertarako? Isuna ordaintzeko ezer ez patrikan, denbora soberan eta borrokarako indarrak ahul.

Gu bion begiradak aurkitzean zalantzaren erreflexu izan dira. Berea ihesbiderik ez duen presaren begirada eta nirea aldiz gorengo autoritatearena bailitza. Bion izana borrokan, eta biok galtzaile”.

Amuarrainak begi bi, sei ezkaluk hamabi

“Elkarteko leihotik ikusten dut, eszenaren testigu naiz. Beste behin egoera Abdulen aurka.

Elkartera pare bat aldiz etorri izan da. Berria da. Badirudi bideratu genion formakuntza

kurtsoak ez duela balio izan. Gainontzeko milaka pertsonen egoera berean dago, gure gizartea ezin ulertuan dabilen egoeran. Bakarrik dago, gauak eta egunak bakarrik dirau. Bere izaeraren oinarri den mesfidantzak ahuldu egiten du gure lagundu nahia, bere isiltasunak areagotu gure zalantza.

Gobernuz kanpoko erakunde honetako partaide izanik Abdul ahalduntzea eta bere prozesuaren protagonista izatea da gure helburu, berari etorkizun oparo bat eskaintzea. Egunero errazago betetzea lortzen dugun fina.

Berak oihal zakua bizkarrean, eta gu denok bere epaile. Euri jasa honen tanta bat besterik ez da Abdul, eta trumoi eta tximistak emanaldiaren osagai.

Ez da erraza etorkinak gure artean finkatzea, hipokresiaz beteriko gizartean itsastea. Batzuk ezinean bizi dira, besteak ugaritasunean galtzeko.”

Begiak itxiz ez duzu eguzkia suntsitzen

Ekaitzaren ostean dator barealdia.

“Burura datozkit egun haiek. Bizitza hobera joateko esperantza bihotzean, amore emateko beharra errealitatean. Hotzaren testigu izanez.

Nirea balitz bezala sentitzen dut zure mina, nirea zure porrota. Ez dizut esperantza faltsurik eman nahi, ezin dizut mundu hobe baten irudia saldu. Nik ere zure jatorri bera dut, denok mundu ilun batetik gatoz, ihesean, hemen beharreko babesa jasotzeko ilusioan. Beharbada dena ez da espero bezala irteten. Beharbada helmugak ilungune batzuk ditu. Gure etorkizuna zortearen baitan uzten dugu, arriskua jakin gabe, karta guztiak jokatuz, eta ordainean zer jasoko dugun jakin gabe.

Hizkuntzaren borroka konstantea ere hor dugu, komunikatu ezina, limosna bat eskatzeko gai ere ez gara izaten. Ni euskaldun berria naiz, esfortzua eta denbora eskainiaz euskara maitatzen ikasiko duzu, euskaraz mintzatzen.

Hemen osatu dut nire familia, berregin nire ametsak. Besapean ekarri nuen Omar txikia korrika datorkit eskolako atetik irteteen. Handik datorkit, eskola atariko guraso patruila saihestuz eguerdiro eraman ohi diodan ogi kozkorrak iman berezia baleukan. Beste lagunak agurtu eta Xabirekin korrika batean Udaletxeko arkupe-tara joan beharra duela esan dit erreka du bat egitera.

Zuregana doaz zuzenean.

Gaur zu ere protagonista.

Ez dizut dena beltz kolorekoa jarriko, bizian ezusteko asko baitaude, baina momentuan leku eta pertsona egokia izateak duen garrantzia nabarmendu nahiko nizuke.”

“Abdul, etxera abiatuko naiz !!! Ez gehiegi luzatu !!! ”

Egiaren erratea, begiaren jalgitzea

“Ni naiz hemen nagoena. Ni begirada arrotzenen biktima. Batzuek lastima sentitzen dute, beste batzuek nazka soilik. Pertsona sentitzen naiz.

Duela pare bat hilabete iritsi nintzen hona, Gahanatik datorren gaztea naiz, familiari eta lagunei betirako agur esan behar izan dien mutila. Nire herrialdean momentu txarrak pasatzen hari gara, pobrezia eta gerra nagusi. Esperantzaren ontzi hartan gure fantasia guztiakin batera abiatu ginen, amets gaizto guztiak atzera uzteko desioan, baina ez ginen jakitun bidaiak beste hainbat amets zital ekarriko zituenik. Ontzian zihoazen gainerako hamaika mutilak itsaso barnean desagertzen ikusi nituen, haien arimak aienatzen. Momentu horretan beldur nintzen eta beldurrak darrai.

Familiaren lau “xoxak” gastatu, seme zaharrenari etorkizun hobe bat opatzeko asmotan. Atzean utzi nituen anaiak, Menelik, Naim, Simba eta Taye. Egunero pentsatzen dut haiengan, niregan beraiek pentsatzen duten jakiteko desiran. Batzuetan haizeari galdetzen diot, erantzun baten ilusio faltsuak eginez.

Hilabete hauek gogorrak izan dira, barne borroka konstantean. Mespretxuak jaso, eta nik lurrera begiratzen dut. Atsekabe begiradak ditut segika, eta nik lurrera begiratzen dut. Ni naiz kontrolpean eduki nahi duten izakia, eta nik lurrera begiratzen dut.

Ezin dute galarazi. Beraien berezko izaera omen da. Nire beharrak ez die geldiarazten, ez-eta nire bakardadeak. Aurreiritziz jositako antzerki honetan, min emateko prestatutako mundu honetan gu guztiok antzezle.

Euri jasa bukatu da eta lehen eguzki izpiek plaza erdira gonbidatzen naute. Modu askotako pentsamenduen foku naiz: fusilen objektibo, polizia fitxategiko protagonista, mundua eraldatu nahi duen horren aktore, herritar horren islada... Baina guztien artean aurrean ditudan begi errugabeen goxotasunari heldu nahi diet.

Mutiko batek “Lehoi Erregea” filmaren kaxa luzatu dit. Besteak hamar eurokoa. Baina ni bien irribarre begiekin geratu naiz.”

*Jatorriak
izenaren erabakia du,
ez izanarena.*

*ATSOTITZAK

- Ezpainak isil, begiak mintzo: Begiak bihotzaren ispilu dira
- Nork bere begiko zakarrik ez du ikusten: Gainontzekoen akatsak berehala ikusten ditugu, gureak berriz ez.
- Beharrak, begiak erne: Beharrean egonda asko behatzen duzu
- Amuarrainak begi bi, sei ezkaluk hamabi: Batera, gure helmugak lortzea errazagoa da
- Begiak itxiz ez duzu eguzkia suntsitzen: Ez dena ausartzen ez du aurrera egiten.
- Egiaren erratea, begiaren jalgitzea: egia esateak min ematen du

Atsotitzen hiztegia: Gotzon Garateren atsotitzak (<http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm>)